

M- 8627

R- 36277


ATV
18941

Agurrtza Deuna



DIEGOREN IRARKOLAN
EIBARREN
1914.

245
XVI 168





AGURTZA DEUNA'REN

OTOITZ-ERA

Gurutz Deun ikurraren.....

Agur, Josu-Kisto.....

Esaleak: Miren, errukizko Ama gozoa, etsayetatik orain begira ta eriotzaldian arr gaitzatzu.

Erantzuleac: Olaxe.

Esaleak: Egunari dagokion Ziñeskayak:

Pozezkoak dira. Lenengoa... Gure Aita, amar Agur Miren ta Aintza Aitak... Gero berriz; Miren, errukizko Ama . bigarren ziñeskaia eta abarr. Orrela darraike Arrentza'raño.



Gurütze Deun † ikurr arren gure etsayetatik †begira gaitzazu, gure Jaun † eta Jainkoa.

Aita'ren eta Semea'ren † eta Gotauna'ren. izenaz. Olaxe.

PATER NOSTER.

Gure Aita goikoa, zure izena donetsi bedi; zure ala belkigu; zure naia egin bedi donokian bezela ludian ere.

Guretzat egunoroko ogia gaur emaguzu; eta azketsi gure zorrak, guk ere zor digutenei azketzen diztegun letz; ziltzaldian ez gaitzazu utzi; gaitzetik begira baizik. Olaxe.

AVE MARIA

Agurr, Miren, esmaiez betea; Jauna zurekin; donetsia zu andreen artean; eta donetsia zure sabelak sortua Josu.

Miren Deuna, Jainkoa'ren Ama; gu ogen-dioen aldez otoi-egizu orain eta gure eriotz aldian. Olaxe.

GLORIA PATRI

Aintza Aitak eta Semeak eta Goteunak len bezela, orain, eta beti beti Olaxe.

CREDO

Ziñesten det Jainko Aita, alorodun, ortze ta ludi Irazalean; eta bere Seme bakarr Josu-Kisto, gure Jaun Goteuna'ren bidez sorrutan, Miren Neskutza'gandik jayo zala, Pontzi Pilatus'pean nekautsi, gurutziltzatu, ill, lurraldu, barrendira jetxi, irugarren egunean illen arretetik berrpiztu, goira igo, ta bertan Jainko-Aita'ren eskumaldean eseria, dagoala; bertatik jeisteko bizi ta illak epaitzera. Ziñesten det Goteunean, Doibatz Ama Orokarra, Deun Alkarrtza, ogen Azketza, Aragi berrpiztea ta amaigabeko bizitza. Olaxe.


SALVE

Agurr, Bakalduna, errukizko Ama, gure bizmen, gozamen eta itxegokintza. Agurr. Deika gaudekizu Eba'ren ume errikatuak. Zugana gaude antsiz, intziriz eta negarrez malkozko ibarr optan. Ea ba, gure aldezkoa, zure begi errukorr oyek guganotz itzuli itzazu. Eta atzerri onen ondoren, Josu zure sabelak sorrtu donetsia erakutsi zaiguzu. ¡O errukorra! ¡O biotzpera! ¡O Miren Neskutz gozoa! gure aldez otoi-egizu, Jainkoaren Ama Deuna, Kisto'ren abin-
duen diña egin gaitean. Olaxe.

GARBAI-OTOI

Agur, Josu-Kisto, nere Jauna, egizko Jainko ta Gizona, nere Irazale, Aba ta Eroslea, Zu'gan ziñesten det, Zu'tzaz nitxedo; Zu gauz guztiak baiño maiteago zaitut; garrbai naiz biotz biotzez Zu irainduaz, Zu zeran on utsa zeralako; baita ere garbai-naiz gaiztokiko neke betikorraz nekaldu nazakezulako; erabakitzen det sendoro, aurrerantzean ogenik ez egiteko, Zu iraintzeko zorietatik igesteko, aitorrtzeko ta ezarriko didaten ogen-nekea egizteko.

Nere bizitz au, egiñen eta neke guztiak eskeintzen dizkitzut, nere ogen guztien orde; eta eskatzen dizudan bezala, uste det Zu, zeran on eta errukitsu orrek, azketsiko dizkidatzula Zure odol ederr, neke ta eriotzaren irabaziatatik; eta zuzenbidea, eta Zuri eriotz arrteraño jopu-egitea emango didazula. Olaxe.



Astelen-Ostegunetarako
POZEZKO ZIÑESKAYAK
Lenengo Ziñeskaya

Jainko-Semea'ren Gizontzea
Eskaria. Apaltasuna.

Gabirel Gongotzona
Jatxi da zugana,
Aitortzeko zerala
Jainkoaren Ama.

Agur, Agurtza...

Bigarren Ziñeskaya

Ama Neskutza'ren Elisabet ikerrtzea.
Eskaria: Maitasuna.

Abidea ikertzeko
Eldu ziñanean,
Jon donetu zenduan
Aren sabelean.

Agur, Agurtza. .

Irugarren Ziñeskaya.

Josu-Kisto gure Jauna'ren Jayotza.
Eskaria: Biotzeko txirotasuna.

Jainkoa'ren Semea
Aurtxo bat egiñik,
Belen'go estalpean
Jayo da zugandik.

Agur, Agurtza...

Laugarren Ziñeskaya

Ama Neskutza'ren Garbikundea.
Eskaria: Garbitasuna.

Garbikizunik edo
ba'zendu bezela,
Apal ta garbi zoaz
Txadonan sartzera.

Agur, Agurtza...

Bostgarren Ziñeskaya

Josu aurraren Arrkitzea.
Eskaria: Josu'ren antzarrpena.

Nekez beterik zaude
Semea galtzean,
Gozotasunez gero
Arrki dezunean.

Agur, Agurtza...

Astearte-Ostiraletarako
NEKEZKO ZIÑESKAIK

Lenengo Ziñeskaya

Josu'ren baratzako Otoitza.
Eskaria; Ogenen garrbaya.

Jetsemani-Baratzan
Aitari otoizten,
Josu negarrez dago
Odolez izertzen.

Agur, Agurtza...

Bigarren Ziñeskaya

Josu'ren Astinketa.
Eskaria: Gorrputzaren ildura.

Orra Josu maitea
Loturik abean,
Gogor astinkatua
Juduen aurrean.

Agur, Agurtza...

Irugarren Ziñeskaya

Arantzaz Bureztuntzea.
Eskaria: Gogoaren ukoa.

Arantza Burestuna
Jartzen diotela,
Orra Josu parrezko
Bakaldun bezela.

Agur, Agurtza...

Laugarren Ziñeskaya

Josu Gurutzez Zamatua.
Eskaria: Nekeetako Jasatasuna.

Gure onez Gurutza
Arturik sorbaldan,
Josu Kozkotegira
Dijoa neketan.

Agur, Agurtza...

Boskarren Ziñeskaya

Josu'ren Gurutzeko Eriotza.
Eskaria: Jainko-Maitasuna

Gure Erosle maitea
Il da Gurutzean,
Bere Ama guretzat
Eman ondorean.

Agur, Agurtza...

Asteazken-Larunbat-Igandeetarako

AINTZAZKO ZIÑESKAIAK

Lenengo Ziñeskaya

Josu'ren Berpiztea.

Eskaria: On-biurtzea.

Josu piztu dalako
Aintzaz apaindurik,
Ortze-ludiak daude
Pozez alaiturik.

Agur, Agurtza..

Bigarren Ziñeskaya

Josu Donokira Igotzea.

Eskaria: Donokirako gogoac.

Donokirontz igo da
Gure Gaizkalea,
Guri erakusteco
Arako bidea.

Agur, Agurtza

Irugarren Ziñeskaya

Goteunaren Etortzea.

Eskaria: Goteunaren Emayac.

Goteun pozkarria
Josuk biraldurik,
Belduengana dator
Emaiez beterik.

Agur, Agurtza...

Laugarren Ziñeskaya

Ama Nekutzaren Jasotzea.

Eskaria: Eriotz ona.

Gotzonez lagundurik
Jainkoaren Ama,
Semeak besoetan
Zerura darama.

Agur, Agurtza...

Boskarren Ziñeskaya

Miren Goi-Bakaldun Burestuntzea.

Eskaria: Ama Nekutzaganaco Uste osoa.

Goi-Aitaren Alaba,
Semearen Ama,
Goteunaren Ezkona,
Bai, Miren, Zu zera.

Agur, Agurtza ..

LORETO-KO ARRENTZAK

Kyrie eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.

Pater de cœlis Deus,
Filius Redemptor mundi Deus,
Spiritus Sancte Deus,
Sancta Trinitas unus Deus,

Sancta Maria,
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater Divinæ gratiæ,
Mater Purissima,
Mater Castissima,
Mater Inviolata,
Mater Intemerata,
Mater Inmaculata,
Mater Amabilis,
Mater Admirabilis,
Mater Boni Consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo Prudentissima,
Virgo Veneranda,
Virgo Prædicanda,

Miserere nobis

Ora pro nobis.

Virgo Potens,
Virgo Clemens,
Virgo Fidelis,
Speculum Justitiæ,
Sedes Sapientiæ
Causa nostræ lætitiæ,
Vas Spirituale,
Vas Honorabile,
Vas Insigne Devotionis,
Rosa Mystica,
Turris Davidica,
Turris Eburnea,
Domus Aurea,
Fœderis Arca,
Janua Cœli,
Stella Matutina.
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium Christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martirum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originali con-
cepta,
Regina Sacratissimi Rosarii,

Ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Parce nobis, Dómine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Exaudi nos, Dómine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

Miserere nobis.

Agurr, Miren, Jainko Aita'ren Alaba.

Agur, Miren, Jainko Semearen Ama.

Agurr, Miren, Jainko Goteuna'ren Ezkona.

Agur, Miren, Irurkoitz Deuna'ren Egon-
lekua.

Agurr, Miren, jatorrizco errugaberik sorrdua.

v. Ora pro nobis Sancta Dei genitrix.

r. Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.

OREMUS

Gratiam tuam, quæsumus, Domine, menti-
bus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante,
Christi Filii tui Incarnationem cognovimus, per
Passionem ejus, et Crucem ad resurrectionis
gloriam perducamur. Per eundem Christum
Dominum nostrum. Amen.



JOSEBA DEUNARI OTOIA

Gure atsekabeen Zugana gatoz, Joseba zoriontsua; eta zure emazte garbiaren laguntza escatu ondorean, zure zaintza ere escatzen dizugu. Jainkoaren Ama Miren Neskutz erruga bekoarekin alkartu zihan maitasun arren, eta Josu aurra laztandu zenduan maitasun biguñ arren, eskatzen dizugu, Josu Kistok bere odolaz irabazi zizkigun ogasunen jabe egiten lagundu, ta gure aldez jarririk, estualdi guzietan begira gaitzatzula.

¡O Sendi Deunaren Zaitzalle zintzoa! Josu-Kisto'ren enda autua zai zazu, eta Aita ain maitekorr zeran orrek, utsegite ta gaizkeri orok gugandik aldendu itzatzu; eta donoki goitik begiratzan gaituzula. ¡O Gaizkale Altsua! gaiztokiko etsayen kaltez daramagun burruka ontan gure aldez alegiñ egizu; eta Josu aurra eriotz zorietatik begiratu zenduan bezela, orain Doibatz Ama Deuna bere etsayen biurkeri ta zorigait guzietatik begira ezazu.

Zure bitartez beti estalpetu, ta zure antzeko izaten lagun zaiguzu, zorion betikorra donokian iritxi dezagun. Olaxe.

GOGOZKO JAUNARTZA



Nere Josu laztana, egizko Jainko-Gizona . . .
ziñesten det Ikurton Deun orretan zaudela . . .
Beste gauz guziak baño maiteago zaitut . . . eta
nere biotzean artu nai zinduzket; . . . baño egi-
tez ezin artu zaitudan ezkerro, . . . atoz gogoz
bederen nere biotzera, . . . eta ogi deunean artu
bazindudan bezela, . . . maite maitez Zurekin
bat egiten naiz Arren Jauna iñoiz ere
Zugandik alde-egin ez dezadala.


GURE AITA bacoitzean ESALEAK: Ogi Deunan
dagon Josu Donetsi bedi.

ERANTZULEAK: Donetsi ta aintzatu beti.

Eta orrela sei aldiz; =GURE AITA, AGUR MIREN
eta AINTZA, eta azkenen Josu'ren Biotz gozoari
KREDOA.

Goiz Egüerdi ta Arratzeko

IRU AGUR MIRENAK



Aitaren eta Semearen eta Goteunaren izenaz.
Olaxe.

Es. 1.^a Jaunaren Gotzonak Mireni irraga-
rri zion.

Er. Eta Goteunaren bidez sortu zuan. Agur,
Miren

Es. 2.^a Ona emen Janaren mirabea.

Er. Egin bedi nigan, zuk diozun bezela.—
Agur, Miren

Es. 3.^a Eta Autia gizatu zan.

Er. Eta gure artean bizi izan zan.— Agur,
Miren

Es. Jainkoaren Ama Deuna, gure aldez otoi
egizu.

Er. Kistok abindutakoen diña egin gaitean.


OTOIA

Gure gogoetan zure eskukia iguzu, Jauna; eta Kisto zure Semearen Gizontzea, gotzonak adirazirik, ezagutu degunok, bere Nekauste ta Gurutzearen bidez pizkundi Donokira eramana izan gaitean.

Kisto gure Jaun Bera arren. Olaxe.



AZKEN-AGURRA



Agur Balkaldun
Goyen goyena,
Poz bikañena
Guretzako,
Zu zera beti,
Ama maitea,
Zuzen bidea
Zerurako.

==

Ebaren ume
Errikatuak
Naigabetuak
Gatoz, Ama,
Samintasunez
Eta negarrez
Pozkida billa
Zuregana.

==

Ederrak dira
Zure begiyak
Maitagarriyak
Dira guztiz,

Itzuli itzatzu
Xamur gugana,
Ama laztana
Txit errukiz.

==

Atzerri onen
Ondorenean,
Zori onean
Arren, guri,
Sabel garbiko
Josu maitea,
Zure Semea
Erakutsi.

==

Ama gozoa,
Gorde gaitzatzu,
Legun zaiguzu
Erbestean,
Beti betiko
Or gora gora
Zure ondora
Joan gaitean.



